



12 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO HIRI- BERRONERATZE INTEGRALERAKO

- Fatxadak eta estalkiak birgaitzea eta etxebizitza-erakinetan eguzki-plakak instalatzea. Horiek izango dira plan honetako jarduerarik nabarmenenak.
- Auzoko Hurbiltasun Bulego batek informazioa eta laguntzak zentralizatuko ditu, familia kalteberen kasuan inbertsioaren % 100 izan daitezkeenak.
- Hiri-berroneratze integraleko plan honetan garatu beharreko jarduketak pixkanaka burutuko dira 2025era arte.

Gaur goizean aurkeztu da Donostiako Udalean Altzako hiri-berroneratze integralerako proiektua. Proiektuak 12.470.000 €-ko inbertsioa eragingo du, eta Eusko Jaurlaritzak 9.463.000 €-ko ekarpena egingo du. Proiektuan, Donostiako Sustapenez gain, Etxegintzak, Ingurumenak, Hiri Mantentzeak eta Proiektu eta Obrek ere parte hartzen dute.

Altza da Donostian etxebizitza gehien biltzen dituen auzoetako bat, 8.997 etxebizitza baititu 1.181 ataritan banatuta. Auzoko eraikinen %85,8 1981 baino lehen eraikita daude, eta hiriko batez besteko errenta pertsonal txikiena dute.

Lanbideren abuztuko datuen arabera, auzoak (19.576 bizilagun) 988 pertsona ditu langabezian, eta guztizkoaren % 5 hartzen du. % 56,3 emakumeak dira, eta 35-54 urteko tartea da kaltetuenena, ia 500 pertsona baitaude lanik gabe.

12.470.000 €-ko inbertsioa auzoko gunek kalteberenetan egingo da: Harria, Arriaga, Arrizar, Roteta, Casares eta Santa Bárbara. Plan horren bidez, berroneratzeko jarduketak egingo dira, bai bizitegi eraikinetan, bai azpiegituran, berrurbanizazioan eta kutsatutako lursailak lehengoratzean, eta, horretarako, hiri-eremua, berdeguneak eta irisgarritasuna hobetuko dira. Esku-hartze horiek guztiek eragina izango dute auzoan, energia-gastua eta CO2 isuriak murriztuz.

Jarduera-ildo nagusiak honako hauek izango dira:

Bizitegi eraikinak birgaitzea

Altzako kalteberetasun handiko eremuetan 12 atari eta 124 etxebizitza erabat birgaitzea aurreikusten da. Eraikinetan egingo diren esku-hartzeetan honako hauek sartuko dira: energia-birgaitze ingurutzaila (fatxada eta estalkia), suteen aurkako babesa hobetzea, plaka fotovoltaikoak jartzea, galdarak ordeztea eta irisgarritasuna hobetzea, hala nola zero kotako igogailuak.

Berrurbanizazioa eraiki gabeko espazioetan

Harria-Pikabea parkeko jarduketak barne hartzen ditu, irisgarritasuna hobetzeko eta amiantoz kutsatutako lurra berreskuratzeko, hiri-espazioa handituz eta parke publikoa sortuz. Plaza eta kaleetako zuhaitziak birnaturalizatzeko jarduerak, eta, Auditz Akularren kasuan, errekek birnaturalizatzeko jarduerak. Energia berriztagarria mintegi publikoetan, drainatze-sistema jasangarriak eta irisgarritasun-arazoak konpontzea.

Hurbiltasun Bulegoa

Hurbiltasun Bulego bat jarriko da martxan, eko-birgaitzea laguntzeko eta bultzatzeko egitura batekin, eta Energia Eraginkortasuna hobetzeko inbertsioen erreferente eta katalizatzaile gisa jardungo du, eta esku-hartzeen laguntzak bideratuko ditu. Sentsibilizatu, erakarri eta herritarrei laguntzeko zerbitzu bat eskainiko du, jarduerak burutzeko. Gainera, hiri-berroneratzeari buruzko elkarlaneko hausnarketa-prozesu bat egingo da herritarrekin eta funtsezko eragileekin.

Energia Komunitateak

Energia Komunitatearen proiektu pilotu bat abian jartzea, autokontsumorako instalazio fotovoltaiko baten bidez, Oleta Ikastolarako eta inguruko etxebizitzetarako. Estalkietan plaka fotovoltaikoak jar ditzaketan eraikin birgaituetako jabeekideen erkidegoei zuzendutako sentsibilizazio eta orientazio programa bat ere sartuko da.

Digitalizazioa

Birgaitutako etxebizitzaren kontsumoen monitorizazioa egingo da, eta etxebizitzari laguntzak eskainiko zaizkie, birgaitzearekin batera monitorizazio hori kontrata dezaten.

Gainera, Altza auzoko merkataritza biziberritzea landuko da, energia-eraginkortasunari buruzko aholkularitza zerbitzuak, monitorizazio tresnak eta jatorri berriztagarriko elektrizitatearen erosketak taldekatua barne. Aholkularitza teknologikoa, digitala eta komertziala.

Paisaia

Lau Haizeta natura-ondarearen parkeko paisaia hobetzeko jarduketak, eremu kalteberaren ingurunean, hala nola kartelak hobetzea, QR ibilbideak jartzea eta bisitariak zenbatzea, parkera bisita sustatzeko ekintzak ezartzeko.

Enplegua

Altza auzoaren hiri-berroneratze integraleko proiektu horrekin batera, Donostia Sustapenak kudeatutako enplegu eta prestakuntza programa bat egongo da, lanbide-irteera berri bat eta enplegarritasuna handitzea ekarriko duten gaitasun berriak eskuratzeko.

Programa hori kolektibo kalteberetako pertsoneri zuzenduko zaie, eta horien artean lehentasuna emango zaie DSBE jasotzen dutenei eta iraupen luzeko langabeei. Gizarte eta lan gaitasunei buruzko prestakuntzaren lehen fasea 2 hilabetekoa izango da, eta, ondoren, kontratazioaren bigarren fasea 10 hilabetekoa (prestakuntza espezifikoarekin eta lan-orientazioarekin batera), parte-hartzaileen laneratzea sustatuz.